


EGIN



'Aire, aire!'-n txotx!

Saio berezia aurkeztuko dute gaur *Aire, aire!* saioko aurkezleek. Izan ere, Joxe Mari Iriondo eta Ainhoa Goikoetxea ez dira ohiko platotik ariko, Astigarragako sagardotegi batetik baizik. Hala, sagardotegien denboraldiari harrera bero-beroa egingo diote. *Aire, aire!* saioan ohiko izaten dituzten lankide eta adiskideak aldamenean izango dituzte. Saioa gaueko 22:05etan hasiko da.